

**AURELIA ARKOTXA MORTALENA  
EUSKALTZAIN BERRIAREN  
SARRERA-HITZALDIA**

*Hendaia, 2008-VII-19*



## ONGIETORRIA

*Jean-Baptiste Sallaberry,  
Hendaiaiko auzapeza*

Euskalzain miresgarriak,  
herritar maiteak,  
jaun andereak,  
ongi etorri.

Joan den martxoan auzapez bilakatu naizelarik, ez nuen uste holako mintzaldi bat egiteko ohorea izanen nuela.

Hasteko, hendaiaer guzien izenean, Aurelia Arkotxa anderea, eskertu nahi nuke ekitaldi hau Hendaian egiteagatik, Baigorriin sorturik ere.

Mundu zabalean ttipi den Euskal Herri honetako herri ttipienetarik dugu gure Hendaia; baina lurretan falta duenaren ordaina itsasoan du beti kausitu.

Itsas basterrean betitik bizi da Hendaia. Itsasoak eman ondasunetatik atera dugu beti bizia, bainan Aurelia Arkotxak bere poemien bidez, itsasoari bestelako aberastasuna eman dio.

Itsaso eta lurraren arteko mugaz gain, Bidasoa ibaiak Hendaia Hegoalde eta Iparralde artean uzten du. Bainan guretzat mugak ez dira murrak, lokarriak baizik.

Horregatik Hendaian aspalditik euskalki guziak mintzo dira eta ongi litaike euskalkien mugak gainditzea, euskara batua indartzeko.

Egun, berezitasun eta ohore haundi bat dugu. Lehen aldikotz Ipar Aldeko emazte bat Euskaltzandian sartzen da.

Horren lekuko izateak ainitz unkitzen nau eta jakin ezazue ene sustengoa duzuela elgarrekin lan egin dezagun, euskera bizi dadin Ipar Euskal Herrian.

Milesker deneri.



## AGURRA

*Andres Urrutia,  
euskaltzainburua*

Egun on guztioi:

Egun osoko lana egin du Euskaltzaindiak atzo Hendaian, Euskal Herriaren bihotzean dagoen herri zoragarri horretan.

Euskaltzaindiak, alabaina, oraingoan lanaldia ez ezik, pozaldia ere dakarke Hendaiaiko herriari eta Euskal Herria osoari, gure artean aurki izango dugulako hizlari Aurelia Arkotxa euskaltzaina, bere sarrera-hitzaldia egiteko.

Hendaian batzen dira Euskal Herriko Ipar eta Hegoaldeak. Hendaia etorri ziren, ehun urte lehenago, euskal herrialdeetako ordezkariak, euskararen akademia eratzeke asmoz. Asmoak asmo, ezina gertatu zen orduan askoren gogoia.

Urte batzuk geroago sortu zen Euskaltzaindia. Hain zuzen ere, laster 90 urte beteko dituen erakundea, sorreratik bertatik etengabe jardun duena euskararen mesederako, aldi gozo zein zailtan.

Aldiak aldi, aldikada berriak bizi ditugula ezin ukatu. Aldikada berriek, nolnahi ere, ideia eta indar berriak behar dituzte.

Horra Aurelia Arkotxa, euskaltzain osoa, bere baitara egungo Euskal Herriaren ezaugarriak biltzen dituena: Euskal Herriaren Iparraldea eta Hegoaldea, hizkuntzaren sorkuntza eta ikerkuntza bateraturik bizi dira bere baitan. Horra ere, besteak beste, unibertsitateko irakaslea, idazlea eta eragilea, bere eskutik guregana datozenak estekaturik eta ongi zerturik.

Bazterrez mintzatuko zaigu gaur. Bazterrok oro, esan gabe doa, begi-bistan baino, ezkutuan eta ostenduta egoten dira sarri-sarri, euskararen barruan. Horiek ere aintzat hartu behar, oso-osoko euskara eta euskalgintza egin nahi badugu.

Halaxe hartzen dugu Aurelia Arkotxa, oso-osorik, uste dugulako Euskaltzaindiarentzat ez ezik, euskararentzat eta euskalgintzarako ere lan egiten jarraituko duela gurekin batera.



## **BAZTERREZ**

### **Sarrera-hitzaldia**

*Aurelia Arkotxa Mortalena*

Jaun auzapeza,  
Euskaltzainburu jauna,  
Agintariak,  
Euskaltzainak,  
Etxekoak,  
Jaun-andreak.  
Egun on.

Ez baitut beraz ni baino lehenagoko aulkidunaren laudorioen egiterik, Hendaia, ni hazi naizen eta bizi naizen herria dut gorai patuko. Herria bera, eta honi datxizkon gaur Urruñakoak diren Pausu eta Biriatu, Hendaia bera, lehen Urruñakoa izana baita ere. Erran gabe doa Hendaia eta haren auzoen destinoa betidanik uraren bertaldean, frontieraren bertaldean diren Behobia, Irun eta Hondarribiari lotua dela ere.

Paseiu bat proposatzen dizuet, Bidasoaren hegari jarraikiz itsaso handiko bazterretaraino, hiria, bazterrak nahasirik bizi diren leku hauetan. Kurutzatuko ditugu, pasan, itzalak urari hurbil diren baratzeetan kurri dabilzanak Anton Abbadia eta Loti *marinel errantea*. Unamuno, itsasoari so bere Bizkaia gogon, propaganda filma zahar batetik jalgi Hitler eta Franco marioneta tragikoak, de Lancre akelarreen bila...

Akuarela bat pintatuko dugu, kolore pastelez pintatua, lehenengo plana koloreak bizixeago, gaurko aire, gaurko urratsa, gaurkoari lotua den lekuan. Gaurkoaren azpian hor da lehena. Gure akuarelan berriz, gibelean, gibeletzko kolore hitsagoetan iraganetik heldu zaizkigun oroit-harri mugak, enetako herri honen nortasuna markatzen dutenak, nahiz iduriz ahantziak diren.

Itxura, silueta heteroklitoak gogora jin eta urak badaramatzanak, hemen zeru kanbiakorriari, itsas bazterreko zabaltasunari, *enbata* haizeari, xirrimiriari, uren kolore berde-bluei lotuak.

Akuarelak. Lanozko kolore, pasteletzko kolore.

Aitzinetik, halere, preanbulo bat erakusteko nik nola ikusten dudan Hendaia:

### *Preanbulo*

Herriak duen ikurrak, baleak, seinalatzen du hemengoan destinoa Ipar Atlantikaren bertzaldean Ternuako irla eta eskualdeetan iragan izan dela luzaz. Hau beti izan da kanpora irekia den herria, eta frontera herria, itsasoz bistan da, baina ere lurrez Frantziatik, Alemaniatik eta Ipar Europatik Algesiras-eko frontieraraino doazen, eta uda guziz hemendik pasatzen diren Maghrebeko emigrante eta emigranteen umeen, eta umeen umeen autoen karabana lerroek ongi agertzen duten bezala.

Hemendik, Paleolitiko garaietarik hasiz, erromatarren garaietarik iraganen eta geroago aro mediebaletarik, beti pasatu izan dira basa ihizian zebiltzan ehiztariak, gerlariak, merkatariak, Santiagorako peregrinoak... Badu bederen mila urte hemen gelditzen zirela, Bidasoako bazterretan zen Prioreneko ospitalean, nekatuak eta zaurituak, Europa guzitik jinik, Compostelara zihoazen ibiltariak. Geroago, leku horretan bizi izan zen eta hil 1856an, Etienne Pellot kapitain korsarioa. Gaur leku horri *Résidence Port Santiago* urbanizazioa deitzen diotelarik.

Prioreneak bazuen monasterioa, eliza, Errotazilo deitu errota nagusia, hilerri handi bat gaurko urbanizazioaren pean dena, lurraldeak, eta ere *Hospitaliako irla*, 1659ko Pirinioetako Tratatuaz geroztik *Konferentzia irla* deitua.

XX. mendeko azken urteetan promotoreek itsuski suntsitu zuten Priorenia leku loriagarrira. Eta hango parkea.

Hendaia herria eta inguruko herrien lotura zein den erran behar banu, ura dela erran nezake. Baztango mendietan sorturik, Baztan izena bidean utzirik eta Bidasoan izen berria hartuz Oronoz Mugairin, heldu dira urak, ur xirripa, uhaitz, ur bizi, erreka, ur handi... Lehenik mendietako iturrietan xur-xur, mehe-mehe, mehar, zabalduz eta mantsotuz doa itsasora hurbiltzen ari den arabera, mila uharte berdeen artean paseiaka heltzen delarik itsasoraino. Txingudiko badiara doaz urak, hor elkartzen direlarik ozeanoko ur gatzatuarekin, mareak itsasoko urak Bidasoan goiti badaratzamalarik.

Batzuetan Frantziako, Espainiako eta Europako Estatuaren destinoa hemen da trinkatu. Uraren erdian: Bidasoan.

Hendaia izan da ere hurbileko historiaren gertakizun ilunen oihartzun leku. Bakarrik bi aipamen, bertze aipagabe uzten ditudan itzalen sinbolo: 1936, Irun sutan, Francok Irun hartua, jendea nazioarteko zubi zaharretik –ene *zubi blutik*, geroztik barandak bluz pintatu baitzituzten– ihes lasterka Hendaia



eskapo. Batteleku kolkoraino kargatuetan Hondarribiatik ihes doazen jendeak, Hendaiaiko Ondarraitz-ko plaiain desenbarkatzeko.

Gogoan dut ere 1980ko azaroaren 23a, GALeko atentatu tragikoa gertatu eta laster pasatu bainintzen *L'hendayais* ostatu aitzinetik. Ostatuko atearen koloreaz oroitu nahi nintzen. Berdea zen. Federico García Lorcaren *Verde que te quiero verde* jin zitzaidan gogora eta ere guardia zibilen txarolezko trikornioez poema... Gaur *Entrepuentes* enpresak baliatzen du lekua. Plakarik ez dut uste baden gertakizunaz oroitzeko. Ahazten baita dena...



## I

### URARI SEGI

#### *Artxipelak*

Ibaian diren uharte berdeek marrazten dute artxipela: uharte handi bakan batzuk eta ezin kontatuzko uharte ttipiak. Eta badian den legarrezko Zorien Uharte mugikorra. Hendaiaik, Pausuk, Behobiak, Irunek, Hondarribiak formatzen duten *continuum* geografikoarekin nahasten dira. Plaia Handiko itsas-beleak, amiamokoak, itsas-zoriak nazioarteko Hendaiaiko eta Irungo geltokien eta Hondarribiako aireportuaren gainetik hegaka pasatzen dira egunero Txingudiko zorien irlara eta *vice versa*. Iger-eko buruko arroken gainean, Hondarribia eta

Hendaiako plaien gainean Bi Arroketarainoko leihor bazterretako arrainen arrantza dabiltzan antxetak gero, aroa iluntzen denean, Jaizkibelego bizkar gainean laino zurista hedatzen denean, Hendaiako hondartzan *enbata* haizeak legarra airatzen hasten duelarik, edo besterik gabe erauntsia heldu delarik, sartzen dira Bidasoako bazterretan, etxe gainetan apal iraganez, elkar saminki deituz.

### *Ibai gorri - Bidasoa*

Ur bazterrean sortua naiz. Ura zen, besterik gabe. Bertze izenik ez nion ezagutzen.

Ur horrek kolore kanbiakorrak zituen, berde, blu, hori, dirdir. Urari so egotea ez zen bakarrik arrainaren zain egotea, zen ere urpeko leku ezezagunak transparentziaz ikustea.

Eta transparentzia hotxetan bainatzea ere. Hori, aroa ederra zelarik, eguzkia urera puskaturik erortzen ari zela iduri zuelarik. Baina ximixtek, in-auzturek eta irurzuriak zerua urratzen zutelarik, oro iluntzen zen, urak hantzen ziren, buztinkoloretzen ziren, gorritzen, eta burrunbaka pasatzen ziren etxe aitzinetik, zubia daldaraziz, errepide bazterrera helduz. Baigorri: ibai gorri.

Haur nintzelarik hona jin nintzelarik, ez nintzen harritu. Ibai gorrik eta Bidasoak bazuten eite. Hemen ere, hala beharra, uraren bazterretan bizi nintzen. Halere, diferentea zen Bidasoa, irlak bazituen, mantsoagoki sugeatzen zen zumeen artean, mareen arabera goiti eta beheti zihoan. Udan, Bidasoako inguru lohitsuñetan zumeen artean gustura gordeak ziren igelak, gaitzeko kalaka ozenetan aritzen ziren.

Bidasoako uretan barkoz joaten ginen haurrak, Konferentzia Irlarainoko ur bazterrak esploratuz.

Gero aldatu zuten ur bazterra, aintziretan etxeak eraiki. Igelak isildu ziren.

### *Arrosa*

Urreraino zihoazen lehen Irandatzeko anderearen eremuak. Gure etxea bera eta auzo guzia lehenengo haren eremuko oihan eta arto landetan eraikiak dira.

Duela berrehun eta gehiago urte bizi zen Hendaiako Irandatzeko jauregian, Doña Arrosa Zuaznabar. Ez bila egoitza, ez duzu atxemanen. Jauregia XX. mendeko bigarren erdian botaila izan zelako lurrera. Leku hartan igerilekua egina dute geroztik. Arrosarik izan zela ere ez genuen jakinen, ez balizkio koplari anonimo batek bertsoak 1807an eskaini, ez balitu norbaitek kopiatu eta altxatu:

*Agur gure Doña Arrosa,  
Irandatzco Abadesa,  
Berorren Messedeac har beça  
Esqueintcen çayon arrosa.*

Urteak joan, urteak jin, Arrosaren jauregiko paretak erori ziren bezala, erori dira parkeko oihana gerizatzen zutenak. Gero, arbolak zituzten moztu. Jalgi ziren igerilekua, kolegioa, gimnasioa, ikastola. Ene auzoa. Bidexkak karrika bihurtu ziren. Inguruetako arto landak murriztuz joan ziren, den mendreneko gune libreak etxez eta eraikuntzaz estali. Gaur, haritz-ondo bakanak, lehengo oihanaren lekuko dira. Gehiago nehora ez daraman parkeko sartze handiko bi zutabeak bezala. Arrosa eta koplariaren ingurumena urtu da. Oro arrotz bihurtu. Euskarazko koplek dute bakarrik gorde oroitza.

1807an, Arrosa anderea *chahar-chahar eta chimurtua* zen. Gure koplariak uste zuen Arrosari eskaintzen zion *floka* edo *lore-buketa*, iraunkorra izaneko zela, ez zutela sasoinak eihartuko:

*Nere floca ez dago ez,  
Eguiña baratze lorez,  
Iguzquiac jajo eta laster,  
Igartzen dituan ojez.*

### *Marea I*

Marea behehitzen zelarik, ibaia dragatu aitzin, oinez pasa zitekeen ibaia. Marea itsas bazterrera heltzen da lehenik, gero sartzen da Txingudin, bazterretako lohiak estaliz, eta badoa gero ibaian goiti Hendaiaiko eta Pausuko zubien azpitik. Biriaturko ur bazter honetan Baztango mendialdetik hosto eta bertze porroskekin heldu diren Bidasoako urak noizpait itsasotik heldu diren ur gazituek kausitzen dituzte. Orduan, porroskak beheiti joateko orde, bultzatzen dituzte mendialdera itsasoko urek.

Beha ditzagun, Lotiren eskutik, marearen arabera aldatzen diren Txingudiko badiako bazterrak. Nehork Pierre Lotik bezain ongi ez baititu deskribatu izan:

*Et tous les détails aussi de cet estuaire de la Bidassoa lui étaient familiers, tous ces aspects qui changent suivant l'heure, suivant la marée monotone et régulière. Deux fois par jour le flot marin venait remplir ce lit plat; (...) les bateliers chantent leurs airs des vieux temps, qu'accompagnent le grincement et les heurts des avirons cadencés. Mais quand les eaux se sont retirées, comme en ce moment-ci, il ne reste plus entre les deux pays qu'une sorte de région basse, incertaine et de changeantes couleurs, où marchent des hommes aux jambes nues, où des barques se traînent en rampant.*

Enbarka gaitezen Bidasoa behera doan Ramuntxoren untzian

*Ils étaient maintenant au milieu de cette région-là, Ramuntcho et sa bande, moitié sommeillant sous la lumière à peine naissante. Les couleurs des choses commençaient à s'indiquer, au sortir des grisailles de la nuit. Ils glissaient, ils avançaient par à-coups légers, tantôt parmi des velours jaunes qui étaient des sables, tantôt à travers des choses brunes, striées, régulièrement et dangereuses aux marcheurs, qui étaient des vases. Et des milliers de petites flaques d'eau, laissées par le flot de la veille, reflétaient le jour naissant, brillaient sur l'étendue molle comme des écailles de nacre. Dans le petit désert jaune et brun, leur batelier suivait le cours d'un mince filet d'argent qui représentait la Bidassoa à l'étale de basse mer. De temps à autre, quelque pêcheur croisait leur route, passait tout près d'eux en silence, sans chanter comme les jours où l'on rame, trop affairé à pousser du fond, debout dans sa barque et manoeuvrant sa perche avec de beaux gestes plastiques.*

## *Marea II*

Abenduaren 25a. Eguzki hotz. Ondarraitzeko plaia. Ezpondako arroken aldetik. arrabotsaren *continuuma*. Itsasoa bare. Ura heldu goiti emeki-emeki, eper zurista mehe batek azpilduraturik. Isil-isila sablean bere bidea eginez badator kit sugea iduri. Punpulak plupluka desagertzen. Badoa ura beheiti baina beti legar eremu gehiago irabaziz. Legarrezko ur grisa. Zerumugakoa aldiz, blu itsutzekoa. Ura heldu orain goiti espazio berriak okupatuz, legar ziloak betez, oraino idorrak diren arrokak bustiz. Erretiratzean, ziloak urez beterik gelditzen. Gero, jinen diren uhinek estaliko putzu berri horiek. Urrun, eskuinetik, Bi Arrokak eguzkitan.

Lertsunak karrasika buru gainetik iragaten zaizkit, trianguluan. Abuztuan hasiak dira bidaian. Aitzindariak mendien aldera baderama bere taldea. Hegorantz. Mendi gaineko lanbroetan galtzen dira.

## II

### FRONTERA

#### *Muga - frontera*

Frantses iraultzan, 1790 urteetan, Euskal Herrian bi hizkuntzetan zabaldu ziren afixa edo karteletan erabili hizkuntzari kasu egiten badiogu, ohartzen gara *muga* eta *frontera* arras ezberdinki erabiliak zirela: *muga*, eremu bereizkuntzendako (nolabait *muga harriek* materializatzen dutena), *frontera*, aldiz, bakarrik bereizkuntza politikoendako. Frontera, egoera politikoaren arabera bizi den geografia.

Libertate-gunearen esperientzia da ere frontera, aitz hau badituzulako. Fronterak zubien bitartez gainditzen dituzulako: Hendaia-Irun / Pausu-Behobia.

Hizkuntza ezberdinen polifonia.

Bidaiari, bizi-esperientzia pluralei irekiak diren pasaia bideak dira frontierak. Halere dialogoak ez dira beti sortzen. Esperientziak anitzetan paraleloak dira. Ez ulertzeak *a prioriz* beteak.

Zein dira zinez hiru hizkuntzen (euskararen, gazteleraren, frantsesaren) eremu aberatsetan mugitzen direnak? Anitzetan bakoitza bere ghettoan egoten da. Fronterako zubien eguneroko biziaren arabera.

Fronterarik ez dela gehiago? Jondoni Jakobeko nazioarteko zubia etorbide bat bezala dela orain? Hori dioena ez dateke frontierakoa.

### III

## GELTOKIA

### *Maria*

Otsailaren hastapena. Igande goiza. Geltokiko ostatuan. Kontoarraren ezkeretik, Maghrebeko bizpahiru bidaiari kafe hartzen. Eta, bakar-bakarrik, sartzean eskuinetik, Maria, lanazko kasketa kakia buruan, kafesne bat edaten. Dela uda, ala dela negu, dela euri ala eguzki, Maria beti hirian kurri badabil. Nola bizkarreko zakuarekin, nola eskuko karroarekin. Aldizka, supermerkatuetako ateetan ikus daiteke. Kafesne gatiluan itzulikatzen du kutxarilla. «Lisboakoa naiz. Familia pobrekoa, nekazariak edo arrantzaleak denak. Bizi beharrez handik aterai... poesia maite dut. Luis de Camoes! Poetetan errege! Begi bakarra zen.»

Mariak hurruputzen du kafesnea. Hotzak eta kanpoan bititzeak hantuk, gorrituak, dizkiote eriak. Ileak ederrak, luzeak ditu.

### *Marionetak*

1940ko urriaren 23a. Norbaitek filmatuak ditu Hitler eta Goering Hendaiara doan tren Baionatik hurbil delarik, ofizier batek haien aitzinean zabalitzen duen mapa handiari so. Europa berriaren mapa.

Fronteratik hurbil da orain tren, Getaria aitzinetik pasatzean itsasoa ageri. Hendaiako geltokian hedatuak bandera naziak. Gurutze gamatuak. Hitlerren ofizier eta soldadoak kaian. Tapiz gorria ere hedatua dute. Francoren beha. Badator azkenean tren, *España* letra handiz idatzia, lehiatila irekia: barnean Franco, besoa goraturik, agur faxistaren egiten. Trena gelditzen da, Franco jaisten. Bi buruek eskua tinkatzen dute. Osteak agurtzen dituzte urratsa martzialean, besoak altxatuz eta apalduz. Marioneta tragikoen gisan esku muturretan hariak balituzte bezala, norbaitek mugiarazten dituenak.

Hendaia: marioneta groteskoen antzesleku tragikoa...

### *Unamuno*

Geltokitik atera, errepeida gurutza, igan eskailera meharrak, hel bertze gaineko karrikara, hor parean piska bat saihetsean eskuinetik den hotelean –Deportatuen karrikan, lehen zenbakian– egon zen bortz urtez Unamuno, 7. zenbakia zuen ganbaran. Maite zuen patioan musean aritzea, auzoko hamabi hamalau bat urteko Jean-Baptiste izena zuen mutiko gazte batekin:

Argazki bat atera zioten ostatu honetako behereko patioan. Pintore bat ari zaio potreta egiten. Saihetsetik ikusten da Unamuno, hieratiko. Ile zuri ederrak gibelera orraztatuak, bizar zuri motz apaindua. Traje beltz edo marroi iluna. Noblezia bat itxuran. Victor Hugoren eitea duela erraten dit Maite ostalertsak. Eta egia da. Hitzaren indarra. Napoleon III.a, Primo de Rivera. Hugo, Unamuno biak exiliatuak. Iduria ez da bakarrik gorputzekoa.

1925eko ekainean Parisetik emazteari idazten dio «*Si tengo que estar fuera de España, este verano iré unos días a Hendaya, a la frontera, a dar allí una conferencia*».

Agorrilaren 23a, trenean da. 28an Apokalipsia irakurtzen Hendaiako Broca ostatuan (gaur Hôtel de la Gare).

Maite du Hendaiara, itsasoa hor delako:

*Brotan aquí, en Hendaya,  
Las aguas lentas de mi fiel Vizcaya*

Baina 1914-1918ko gerlan hil ziren Biriaturuko mutil gazteez diolarik:

*Oroit gutaz! Pedís nuestro recuerdo  
Y una lección nos dais  
de mansedumbre;*

Ulertuko ote zituen, zinez, hemengo jendeak?

## IV

### PORTUAK

#### *Azken portua*

Portu eta enbarkatze-leku frango ukan ditu Hendaiak: Beltzeniako Harri Zabaleta, Caneta... Itsas urrunetan eta hurbiletan zabiltzan hemengo arrantza-leak, sardinak, beren buru gainetan pausatuta zituzten zare apaletan, ortutsik saltzera zaramatzaten neskatxa zuzen lerdanak sepia kolorezko argazki zaharretan dira bakarrik bizi. Arrantzaleen azken portua beherago da gaur badian. Gero eta hutsago arrantzaleen portua. Hurbil den turismo portuarekin konparatuz, bertze mundu bat da hau. Jainkoak ahantziak hemengo marinelak. Azken portua ere laster desagertuko. Akabo.



### *Kaier batean*

Baionako erakustokian gordea den kaier xahar batean tinta histuaz idatzik ak dira Arrosa Zuaznarri buruzko koplak eta ere 1766ko data dakarten Hendaiaren ohoretan diren koplak batzuk.

Geografia galdu bat gogoarazten digute *Itsassoaren puntuan* [den] *gazte-lu ederra-z ari zaizkigu...*

Eta Hendaia portu zela, aterbe-leku, gogorarazten digute:

#### *Hendaya*

*Mariñelak zu zaitu bere hirriscutan,  
salbamenduko portu haize, tenpestetan,  
mendiak antapara, zuk ere bai kontxa,  
etxaturik aingura, segur du erlatxa.*

### *«Bakhar etxea»*

Julien Viaud ziren haren sortze izen deiturak. Pierre Loti, haren izengoitia. Ibili zen munduko itsaso guzietan, Txinan, Indian, Persiako kostetan. *Marinel errantea* dio dela bere buruaz ari delarik. Tahitiko *vahine* amoros batek *Loti* lore izenez bataiatu baitzuen gazte zelarrik, behin Julien Viaud

marinel ofizier-idazleak erabaki zuen, idazle-izena hartaz geroztik *Pierre Loti* izanen zela.

Itsas bazterreko leku honetara destinatu zuten behin *Le Javelot* gerla ontziaren buru Julien Viaud komandantea. Eta lekuaz gustatu Pierre Loti idazlea. *Amorostu* erran behar litzateke, amorosten baitzen lekuez, emazteez, gizonez.

Ur bazterreko Adame etxeari *Bakhar etxea* izena eman zion. Leku berri bakoitzaz liburu bat idazten zuenez, Euskal Herriari buruzkoa *Ramuntxo* izan zen. Mundu kurri segitu zuen baina leku hau ezin utzia zuen. Hemen hil zen 1923an.

Canetatik jaitsiz marea apal delarik, lerrakorrak diren bazter lohitsueta barna joanez, hurbil daiteke Pierre Lotik idazteko hautatu zuen dorrera, eta Viaud komandanteak ur bazterretik hartzen zituen harrizko eskailera meharretarra...

Bidasoako kontrabandisten joan jinak bildu zituen Ramuntxon:

*Minuit, une nuit d'hiver noire comme l'enfer, par grand vent et pluie foudroyante. Au bord de la Bidassoa, au milieu d'une étendue confuse au sol traître qui éveille des idées de chaos, parmi des vases où leurs pieds s'enfoncent, des hommes charrient des caisses sur leurs épaules et, entrant dans l'eau jusqu'à mi-jambe, viennent tous les jeter dans une longue chose, plus noire que la nuit, qui doit être une barque, une barque suspecte et sans fanal, amarrée près de la berge. (...)*

*Ils s'en revenaient joyeusement [les contrebandiers] leur entreprise terminée. (...)*

*Ils s'en revenaient comme des gens n'ayant jamais rien eu à cacher à personne, en traversant la Bidassoa, au matin pur, dans une barque de Fontarabie louée sous la barbe des douaniers d'Espagne.*

Irakurri nuen haurra nintzela, *Ramuntxo*, eta hotz utzi ninduen, aise nahiago nuen *Pêcheur d'Islande*...

Zertako narratzaileak (Pierre Lotiren *alter egoa* dudarik gabe) azpimarratzen ote du Ramuntxori herriko apaiza zaharrak eskaini zizkion bidaia liburuak eta kosmografiak irakurri ondoren sortzen zaion ezinegona, mugitzeko tirria, kanpotiar aitarengandik heldu zaiola, eta ez ama euskaldungandik?

*Le vieux prêtre (...) lui a prêté des livres (...) et à propos des astres lui a donné la notion des mouvements et des immensités, a entrouvert devant ses yeux les grands abîmes des espaces et des durées. Alors, dans son âme, les doutes innés, les effrois et les désespérances qui sommeillaient, tout ce que son père lui avait légué en sombre héritage, tout cela prit forme noire et s'est dressé. Sous le grand ciel des nuits, sa foi de petit Basque a commencé de faiblir.*

Ulertu ote zituen Pierre Lotik, zinez barnetik, euskaldun bidaiariak?



## V ITSASO

### *Gaztelua*

Gureztat, gaur, *gaztelua* Abbadiakoa da. Itsas bazterretik, Ondarraitzetik ikus ditzakegu haren dorre puntadunak.

Anton Abadia leku hauetaz, hemengo itsas – bazter hauetaz gazterik gustatu zen. Urteak eta urteak gaztelua eraikiarazi aitzin, Zuberoan zituen egonaldi denboretan, atzematen zuen astia itsas bazter honetara jiteko, laster egitera, igerika aritzera, Etiopiara egin gogo zuen bidaia luze eta arriskutsua gogoan zuela, bere gorputzaren entrenatzeko.

Hogeiabost urte dituelarik idazten duen egunkarian, hemengo kost muturreko mapa ttipi baten eskema egiten du. Leku izen batzuk idazten: *Bordaberi* etxaldea, eta *Haisabia*, *Asparo Chipia*, *Catalincoenia* orain Hendaiaiko eremuetan direnak.

Behin bere gazteluaren eraikitzeo hautatuko dituen lurretan jadanik ametsetan ari ote da?

Anton Abadia mundu kurri ibiliko da bizi guzian. Beti miresteko prest, ikertzeo prest. 1884an, hirurogeita hamalau urterekin despedituko dugu guk hemen Atenasetik, Alexandriara, eta handik Kairo, Suez, Djeddah, Massawa, Hodeidda, Aden, Berbera, Assouan, Assiout, Piramida Handia, Jerusaleme, Konstantinopla, Pirea, Napoli eta azkenik Erromara eremanen duen bidaia zientifikoaren prestatzen ari delarik...

Azken gauzatxo bat halere, Anton agurtu aitzin, eskerrak hainbertze euskarazko eskuiskribu zaindu dituelako. Ez balitu harek zaindu, XVIII. mende bukaerako Egiategi zuberotar filosofoaren eta Urruñako Martin Goyhetche alegiagilearen eskuiskribuak nehork ez baitzituen zainduko. Milesker.

### *De Lancre*

Pierre de Lancre, Bordeleko Parlamentuko kontseilaria 1609an heldu da Lapurdira, Henri IV.a Frantziako erregeak mandaturik sorginkeriaz kontra aritzeko. Lau hilabete iraganen ditu tribunal berezi horrek egun guziz Lapurdiko herri nagusienetan bilduz. Larogei bat *sorgin*, gehienak emazteak, erreke izan ziratekeen. Gertakari latz horiek ahantziko ziren, guzia ahazten den bezala, de Lancrek ez balu 1612an liburu bat idatzi *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons* deitua. De Lancreren sorginkeriaren mapa delirantean hamar bat aldiz aipatua da Hendaiaiko lekua: Hendaian baitira gertatzen sorginen batzarrak, 12.000 pertsona biltzen dituzten akelarreak!

Margarita Senpereko 17 urteko neskatxak torturaren mehatxupearan iziturik, edo torturapean, du hori asmatu ...

Halaber Hendaiako Maria Azpilkuetakoak dioelarik deabruak akerraren burua duela eta „buztanpean duen bisaian« musukatu duela... Hendaiako plaiako akelarreetan alegerantza anitz bazela eta amodioa libreki egiten zela. Denen bistan...

Eta Nekatok aitortzen duelarik gau batez airean eramana izan zela Hendaiako kostan ospatzen zen akelarre batera...

Eta Hendaiako Maria Laparkak, 19 urte, dioelarik Larrungo Domingina Maletena sorginak akelarre gau batez jauzi ikaragarri bat egin zuela handik Hendaiako plaia batera...

Eta Belloc-eko Janetak, 24 urte, *atsua* izengoitiz ezagutuak, dioelarik Hendaiakoa den Ansugarlok ttuntuna jotzen zuela akelarretan....

Eta Abadiako Janetak, 16 urte, dioelarik harek ere Hendaiatik hurbil den *Uderalse* itsas gegian badakiela 12 000 sorgin bildu izan direla....

Eta akelarretara gauero joaten dela dioen haur hark aitortzen duelarik sorginek prestatu drogak unti batean gordeak zirela, han, itsas bazter - bazterrean den arroka gora baten kaskoan nonbait.

Aldiz, de Lancrek sinesten zituen denak: 1609ko uztailaren 19an, preseski gaur bezalako egun batez, joan zen bera pertsonalki, bi aldiz, arroka hori den lekura, zaldizkoz eta anitz jendez lagundurik (seguraski Ondarraitzeko puntan diren arrokez ari zaigu, aise baita zaldiz hara hurbiltzea).

Izkiriatzen du bere liburuan, arrokaren kaskora igatera entseatu zirela erreusitu gabe, patarra izigarria zelako. Baina bigarren aldiz joan zirelarik unziaren errestoa lurrean atxeman zutela, sorginek mezperan handik lekutu berria zutelako delako lur-untzi hura, gordetzeko. Eta hori akelarrera hara gauero joaten zirenek konfirmatu zutela...

\* \* \*

Milesker Hendaiako bazterrean egin dugun paseiu hau enekin eginik. Erran zaharrak dioen bezala: *Bidaide*, *gogaide*. Hala biz.

## AURELIA ARKOTXAREN SARRERA-HITZALDIARI EGIN IHARDESPENA

*Beñat Oihartzabal*

Jaun auzapeza,  
Jaun euskaltzainburua,  
Jaun-Andere hautetsi eta agintariak,  
Jaun-Andereak,  
Euskaltzain adiskideak.

Ohore eta plazer da enetzat, hemen, zuen aitzinean, Aurelia Arkotxa Euskaltzaindian sartzen den egun honetan, haren sartze hitzaldiari ihardestea. Ohore eta plazer, bai eta, aitortzen dut, begiratuki betetzeko eginkizuna ere, bazterrak akuarela solasez eta ele kolorez biziartzten baino, perpausei mekanika baten ekoizpen batzuei bezala behatzen ohituago naizen honentzat. Euskarari baliatzeko bi molde, bata bertzetik franko desberdinak, Euskaltzaindian biltzen direnak, baina, egun bezalako egoeretan bereziki, hain aise uztartzen ez direnak.

Horregatik, euskaltzain berriak hitz irudiz Hendaian gaindi eginarazi digun ibilaldi bereziaren ondoan, nihaur poesiaren eremuetan menturatzeko uzkur izanik, zuzenean eranzuteko orde, zeharbide bat hartuko dut, eta gu bien arteko hainbertze solasaldiren gaia izan den adiskide bati eginikako gutuna irakurriko dut.

Adiskide hori, mundu hau duela hiru mende et'erdi edo utzi zuena, inguru hauetakoa zen, Ziburukoa hain zuzen. Eta azken denbora hauetako lapurtar anitzek ahantzixea baitute haren izena, esperantza dut atsegin hartuko duela Johannes Etcheberrik, ikusiz egun euskaltzainek, gaurko poeta bat gure artean hartzean, gogoan izan dugula.

Irakurtzen dut, beraz, gutun hori.

\* \* \*

Johanes adiskidea,

Harrituko zara, nik uste, Hendaia xoko honetarik ageriko irakurketa bat eginenez, igortzen dizkizudan hitzak zueganaino heltzean. Beldur bainaiz aspaldi duela ez dizula nehorik behere honetarik berririk helarazi, eta engoitik egina

duzula zeure baitan betikotz oroitzapen galduen hilerrian deuseztaturik dagoela zure fama eta entzutea, itsas hegi honetan denboran hain handi izana.

Baina ez. Ez da hala. Ez arras bederen. Ezen jakiteko duzu urte guzietz eguberri gauean ozenki kantatzen dituztela oraino egungo euskaldun giristinoek bozkariozko gau hartako zuk egin koplak. Halaber, euskal metrika estudiantu nahi duten ikasleek ikertzen dute zure neurtitz molde berezi, hitz ordenaren aldetik doi bat bihurri eta korapilatsu, Oihenarten arabera libroegi zen hura. Segur naiz, orobat, koplazko otoitz haiek plazerez irakurtzen dituztela gaurko zenbait olerkarik ere, hala nola orain ezagutarazi behar dizudanak.

Alabaina, horregatik idazten dizut: poeta bat, literatura irakasle eta iker-tzailea ere dena, sartzen baita egun Euskaltzaindian, eta hura ere itsas hegi honetan bizi, eta bizi izana baita gehienik, aurkeztu nahi dizudalako, eta parada horretan zurekin bi solas egin.

Euskaltzain hori Lapurditik kanpo sortua da, Nafarroa Beherean, Baigorri hain zuzen, hots, zuk ere, Axularrek bezala, liburu eskaintza egin zenion Etxauzeko seme, duela lau ehun urte, Baionan, apezpiku aulkian ezagutu zenuenaren herrian. Hemen goiz honetan gurekin dugun Esther, ama, sortzez baztandarrak, eta, zauden lekuan, zukanik urrun ez datekeen Tiburtzio, sortzez baigorriarrak, ekarri zuten mundura. Honen aita, haatik, bizkaitarra zen, Orozkotik Argentinara joanik, Baxenabarren gelditu baitzen gero, Europa itzultzean. Burnetenea sorretxearen oroitzapena, hango inguru hurbilen usain eta argi jokoak, zurezko zubixka, gogoan ditu oraino Aureliak, josteta edo amets lagun zituen zakurra eta zaldiak bezala, hala nola haren olerki batzuek noiztenka salatzen baitigute.

Hamar bat urte zituen Hendaiara jin zelarik, eta euskara oraino nagusi zen Baigorriko xokoa bere buraso eta bi anaiekin utzi behar izan zuelarik. Zer zaflakoa, haatik, orduko erdarak osoki jabetu ziren Hendaiako karrika eta eskolak atzematean! Zeren, Johannes, ahalkez edo zuri pena egin beldurrez, nehork ez badizu oraino jakinarazi, plaza honetarik mintzo natzaizularik, ezin gorde diezazuket : aldebat bertzelakatu dira itsasadar honetako inguruak, eta etsigarriki euskaragabetu hemengo jendeen mihi-ezpainak.

Hargatik, Arkotxa familian euskara beti lehen izanik, ondotik ez zuen galdu Baigorritik jin neska ttipiak, sortzetik beretik, beretu zuen euskara, eta ez zen hoztu ondoko urteetan sortzeko mintzairaren alderako haren atxikimendua.

*Neska* erran dut, eta menturaz pentsatu duzu orduan mihiak huts egiten zidala. Ez, Johannes, zeren emaztea baita euskaltzain berria, ezkondua, eta Eneko gizon gazte baten ama ere bai. Badaiteke bitxi irudituko zaizun kontu hau, oro jainkoak eginak izanagatik, diotenaz, teologo askorentzat, egundainotik dudazkoa izan baita, gogoeta eta izpirituaren gauzetan bereziki, emakumeak, egiazki, gizonen bete ote diren. Teologoez ari natzaizu, zu hala zinelako, baina bertze horrenbertze banerrake anitz jendez, hala nola berriki arte behin-

tzat, hemengo eta urrunagoko, gurea bezalako, eta bertzelako akademietako kideez ere, luzaz eta luzaz, oro lotsa izan baitira, beren artean emazterik onartzeko. Funtsean, zuhaur ere jainko jakintza delako hartan doktore izanik, toki guti egin zenien emazteei zeure kopletan. Eta orduan ere hala-holako eleak erabiliz, seigarren manamendua urratzen duen bekatuaren aipatzeko izan baitzen gehienik. Baina doi bat aldaratu bainaiz egun zugana hurbilarazi nauen solasgaitik, itzul nadin hartara.

Aurelia haur gaztea, etxekoekin Hendaian jarri ondoan, itsas hegi hone-tako ikastegietan eskolatu zen, eta bizitzearen norabideen hautatzeko adinera heltzean, bere barne sentimenduak, molde eta estetika berezi batean, zerbait gisaz kanporatzeko egarri berezi hori haren baitan errotu zenean, eta idazluma horretarako pintzela baino hobetsi zuelarik –zenbait denboraz zalantza horretan egon baitzen– ez zuen dudarik izan, oroz lehen, euskal hitzetan aurkituko zuela olerki ekaia. *Atari ahantziak* deitu haren olerki liburua da bilakatze horren geroagoko ondorioa.

Holako hautua egin zuen, Bordelera joanik, unibertsitateko goi mailara hurbiltzean ere, doktore tesiaren aztergai gisa, XX. mendeko euskal poeta berritzaile bat hautatu baitzuen. Lapurtar guziak zordun gauzkan Estebe Materre zure mendekidea bezala, hura ere euskaldun berria zen (hola erraten baitugu orain, euskara, berantean, gizon edo emazte adinean bereziki, ikasi dutenez ari garenean). Gabriel Aresti zuen izena eta joan den mendearen bigarren herenean, bere sorterrian, Bilbon, franko gazterik hil aitzin, bizi izan zen.

Urte ilunak haiek, mugaz bertze parteko euskaldunentzat, gerla bat gogorra izan baitzuten, zure garaian Gipuzkoako eta Lapurdiko itsas hegia suntsitzen zuten haien eredura, izigarri krudela. Aurelia Arkotxaren Baztango familiarentzat ere, eta bereziki Joakin Mortalena, Estherren aitarentzat, garai gaizto-gaiztoa izan zen, gerla hartan galtzaileen alderdian gertaturik, gorriak eta beltzak ikusi baitzituzten. Berrogei urtez edo, mugaz haraindiko euskaldunak beldur pean egon ziren, halako gisaz non zure manerako konparantza eginik eta zure hitzak baliaturik, Euskal Herria izan baitzen orduan *itsasontzi infernuko uriz eta haizez tormentatua* bezala:

*Hara huna [ibilki] haize kontraz luietan  
Ez ordean sekulan galdu gabe uhiñetan.*

Aresti izan zen –aspaldi eri izanez, egun, zorigaitzez, gure artean ez dugun Xabier Diharce Iratzeder donibandarrak otoi-zlari poeta bezala– tormenta hark altxatu uhinetan, euskarazko literatura sorkuntzaren bizi-aztertera bermatu ziren haietarik. Delako ikerketa hartan Arkotxak, *Maldan behe*ra olerkian Arestik agerian baino gehiago ezkutuan segitu zituen poesia bideen ikertzea eta argitzea izan zuen helburu, baita baliatu zituen neurrien aztertzea ere, berak bere poemetan bertzelako bidetarik ibili nahiago bazuen ere.

Arestik, garai hartako euskararen berriztatzaile gehienek bezala, estimu handian zinduzkateten lapurtar idazle klasikoak (ezen jakin behar duzu aspaldian molde horretan aipatzen zaituzteguna zu, eta zure garaiko eta ondoko bi mendeetako lapurtar idazleak). Ez dakit, haatik, zure bertsoak biziki ezagutu zituen Bilboko poetak, garai hartan neke baitzen haien irakurtzeko paradarik aurkitzea. Gustukoak izan ote zituen edo izanen ote zituen? Ez naiz segur. Echeperaren ondoren, otoitzak, euskal poesia landua bahitu bezala atxiki zuela iruditzen baitzitaion, eta, formari dagokionaz ere, Axularren prosa goraltzatzen bazuen, orduko lapurtar koplariak ez baitzintzketen hala preziatzen. Niri hala iduri, bederen. Beti hobetsi zuen ahozko tradizioaren bahetik iragan bertsogintza, zuena baino, izan zedin zurea edo zurea gaitzetsiz bertze bide bat hartu zuen Oihenartena. Euskal metrikaz mintzatzean, deus gorde gabe erran zuen:

*Gure poeta eskolatuek eskola txikiagoa ukan dute bertsolariek baino.*

Paradoxak zer balio duen eztabaidatzen hasi gabe, erran behar dizut egia dela gure begi-belarriei gustatzenago zaiela atal anitzetako olerki lanetan neurri-jokoetan aldaketa batzuen aurkitzea; horretan parekorik ez zuen Arestik, Arkotxaren ikerlanak erakutsi bezala. Ezen ez gara hain aise jartzen oraingo euskaldunak, zuk baliatzen zenuen neurtitz molde bakarrari, nahiz –beharrik ere– bazenekien, bertzelako hizkuntza jokoan bidez, eta josbide ez-ohikoak erabiliz, zeure koplei bizi biziskoa ematen.

Hain zuzen, egun Euskaltzaindian sartzen den lagunak XX. mendearen bigarren parteko Lete eta Aresti bezalako koplarien obrak ikertu ondoan, aitzineko euskal idazleen lanak hartu zituen aztergaitzat. Horrela, Bordeleko unibertsitatean euskal estudioen saileko irakasle izateko aukera izan zuenean, –urte andana bat bada orain katedra aulkian jarria dela eta haien buru delatutaz eta zure garaiko eta aitzinagoko euskal idazleez, aurriritzi eta ideia asko, desegokiak edo erdi faltsuak zirela iruditurik, indar berezi bat egin du, zuen idazlanei bertze begi batzuekin behatzeko. Horrek ez baitu erran nahi gaur egungo poeten artean bere gustuko duenik ezin aurki dezakeela. Haietako bat, mende laurden honetan abantzu Euskal Herritik urrun bizitzera behartua dena, bereziki maite du. Sarrionaindia deitzen da; hura ere bizkaitarra, eta, olertiaren ontzian, egiatiasunak arruta emanik, uhinetan galdu gabe haize kontra ibiltzen ikasia.

Jakin gogo duzu beharbada, Johannes, hori entzunik, zein diren zure bertsoen artean euskaltzain berriak gustuko dituenak. Ez diot zuzenean galdatu, baina maiz elekatu baikara biak zure idazlanez, erranen dizut koplak sail bat biziki laket zaiona: hura da zure lehenbiziko liburuan argitaratu zenuen *Itsasoko biai*etako *othoitz*en araldea. Zergatik?

Arrazoi bat baino gehiago eman daiteke. Biga bederen aipa diezazkizuket hemen: itsasoa eta bidaia, biak baitira koplak haietako gai nagusiak, eta Aurelia Arkotxaren poematikari dagozkionak. Ezen, aitzineko garaietako zuen idazki-

ak aztergaitzat harturik ere, bertzetarako ere baliatu zaizkio, bereziki bere barne bidaien egiteko eta bere geografia poetikoaren aberasteko.

Plaza honetan entzule direnetan denek ez baitituzkete zure bertso haiek ezagutzen, azaldu behar diet, izenburuak dioen bezala, otoitzak direla, orduko itsasturi irakurleei eskaintzen zenizkienak, gerta zitezkeen egoera desberdinetan, buruz buruan bezala, jainkoari kanta ziezaizkioten. Ez dut uste geroztik euskal idazle bihi batek holako otoitzik egin duen, are gutiago, marinelen arrangurak hain hunkigarriki bildu dituenik, izan den.

Horrela, *burjesa* deitzen zenuten ontzi jabearen, ontziko agintarien, maisturuaren, pilotuaren, lemazainaren, guardako marinelen, arrantzaleen, harpoilariaren, guzien eta bakoitzaren tokian aldizka emanik, modurik errealistenean agerrarazi zenituen, bidaia haietan itsas gizonak izaten zituzten esperantzak eta bereziki beldurrak.

Funsean zuhaurk *itsasturi irakurtzaileari* egin abisuan garbiki adierazi zenuen zer gisaz, eta zeure buruari zer eginkizun emanik, asmatu zenituen kopla horiek. Gogoratzen ditut:

*Hemen tiat bada othoitz batzuk hangotz formatu,  
Mariñel behar duenak gogoan detzan hartu.  
Ezen moment oro dituk xoll handi hirriskuak,  
Non handiro baitabiltza jendeak izituak.  
Mariñelen emazteak goizean tuk senhardun,  
Eta titxa aldaturik, arratsean alhargun.  
Orain aberats burjesa, aurkhi moian gabea,  
Zeren ureko ona den haizearen parea.  
Ofizio gaitzena duk ere itsasokoa,  
Zeñak erraxki ahazten baitu lehorrekoa.  
Nekeez berze alde duk herioa hurbilla,  
Zenbat lodi baita untzi belariaren gilla.  
Hartarakotz, mariñela, suplika zak Iainkoa,  
Egiten dukela othoitz gaitzen ereduakoa.*

Hala-hala, liburu hartan bidaia haietako garrantzizko memento bakoitzeko ere kopla espresak idatzi zenituen: enbargatzean kantatzekoak, edo desenbargatzean, aingura altxatzean edo egoztean, belak hedatzean edo hartzean, lehorra estaltzean edo berriz agertzean, ... ezagunak dira oroz gaineratik, baleazaleentzat egin zenituenak, euskal arrantzaren historia kontatzen duten liburuetan maiz baliatu izan baitira. Alabaina, Johanes, badu bulta bat euskaldunek ez dutela gehiago balearik harrapatzen. Diote, zu bizi zinen garaian hasi zela balea hurritzen euskaldunek ehizatzen ohi zuten tokietan, horregatik gelditu baitira zure kopla haiek garai haietako lekuko eta oroigarri.

Bidaiak eta bidaia ixtorioak gustukoak ditu oroz gaineratik Aurelia Arko-  
txak: urrun edo hurbil egiten direnak, aspaldikoak eta gaur egungoak, gerta-

kari liluragarriak kontatzen dituztenak edo egunorozko bizi-xehetasun arruntzenak biltzen dituztenak. Haren irudimenak hitza eta begia, belarria ere bai batzuetan, zerbitzari dituelarik, haietan aurkitzen ditu olerki eta gogoeta gaiak. Aste guzietan haien berri badugu *Berria* deritzan egunkariko *Maratila* izeneko kroniketan, eta halaber haien oihartzun zuzena ere aurki dezakegu *Septentrio* izenburuko haren liburuan, honetan Marco Poloren amets salatu gabeak agertu ondoan, euskaldun mariñelek Ternuako aldean utzirikako hatzen ondotik ibilarazten baikaitu, Piarres Detcheverry Dorrek euskararatu Martin de Hoyarçabalen *Nabigazioneko liburuari* jarraikiz, eta artetan –nola ez– zure koplez ere oroituz, eta haietarik batzuk bere olerkien artean sarraraziz.

Johanes, solas hauek eginik eta euskaltzain berria plazer handiz aurkezturik, orain zure uzteko tenorea hurbildu zait. Ordean, gutun hau gisa horretan bururatzera noalarik, eta bai zu, bai euskaltzainak –berria nola berri izanak– eta gainerako bertze entzuleak agurtu behar zaituztedalarik, ohartzen naiz ez dizudala batere erran zer den Euskaltzaindia, nahiz sumatzen dudan zuhaurk ere izenetik beretik asmatua dukezula euskararen zaintzea helburutzat hartua duen zerbait konpainia dela. Eta, hala da.

Oroit bide zara, zure mendean, Richelieu kardinaleak frantses mintzairari indar eta sendotasunaren emateko, erregearen gerizan akademia bat sortu baitzuen. Hala-hala egin dugu abantzu hiru mende geroago euskaldunek ere, mugaz bertze parteko herikideei esker. Gisa horretan sortu zen, duela laueta hogeita hamar bat urte, Euskaltzaindia deitzen dugun euskararen akademia, egun kide berriaren hartzeko Hendaian bildurik dagoena.

Richelieuk sortu akademia aipatu dizut, eta erran behar dizut frantses mintzairaren akademia hori beti hor baita, lehen bezala Frantziako buruzagi lehenen gerizan kokatua, ez dela hura gure adiskideetarik: han biltzen direnak letra jendeak izanagatik, hertsikeria hertsiena erakutsiz jazarri zaizkie berriki euskara bezalako mintzairari, ez nahiz Frantziako lege testu gorenean den molderik arinenean ere ezagutuak izan daitezen. Zinez jokabide itsusia, horretaratu direnak desohoratzen baizik ez dituen.

Gogoan ditut Claudius de Rueil zure lehen liburuaren babesle izan zenari eskaini zenizkion neurtitzak, haietan goraki baitzenioen hizkuntza aniztasuna erresumaren handitasunaren marka izanik, *erregeen ohorea dela anitz mihitako sujetak izatea* (ezagutu dituzkezu hitz horiek, Johanes, zureak baitira). Eta aitzina segitzen zenuen, baizik eta, gisa horretan, Euskal Herria bezalako lurraldeetan Erregearen eginbidea dela *sujet guzien defendatzea*, zehazkiago erranik eta berriz ere zure eleak hartuz, *hizkuntza batekoak hain ungi nola bertzeak*. Ez dut ahanzten bertzalde, eskaintza-solas hartan, euskaraz, eta euskara hutsean, ari izan zintzaizkiola erregea baino estimatzenago zenuen, eta zuretzat esku handiago zuen elizako buruzagi erdaldun hari: erratearekin berearekin hitza ekintza eginez zenion adierazi ohore zela harentzat, zu hari *aharantza arrotz batez mintzatzea*.



Jakizu bada, Johannes, abantzu lau mende iragan ondoan, erregerik ez izanik ere aspaldi Frantzian, urrun gaudela zuk zuzentasunez eskatzen zenuen euskararen eta euskaldunen legezko errespetua hartzetik. Gaitzetsi zenituen euskararen gaitzerraile eta *lizuntzaileak* hor dira beti, bai hemen, bai han, gorte jendeak dabilzan tokietan. Hirigoiti zure miresle izan zenak uste izan zuen zure lehen liburuarekin euskara galtzeko xedea izan zutenak etsiturik Lapurditik urrunarazi zenituela. Ondikotz, makurrean zen, batere hemendik urrundu baziren orduan, luze gabe itzuli ere baitziren.

Aise konprenituko duzu, gisa horretan, gure konpainiari duela lau ehun urteko aitzinekorik aurkitu behar bazaio, gogokoago dugula inguru hauetako euskaltzaleek orduan moldatzen zenuten taldea izatea, bertze mintzairen alde-ra hain errespetu guti derakutsan lehen akademia hura baino. Ez dakit fedez landa euskara bera zabaltzeko eta aitzinarazteko xedea izanez, halako talde antolaturik izan zenetz egiazki Lapurdin zure garaian, edo hala uste izatea gustatzen zaigulako erraten den holakorik. Demagun izan zela, jakizu, bada, atsegin genukeela orok, eta bereziki gure kide berriak, Sarako erretorearen eta zuhauren gidaritza pean hemen orduan ustez egiten zenituzten biltzeen ondokoa balitz Hendaiako egungo gure biltzar hau.

Ez adiorik, Johannes adiskidea, eta hemen gauden guzieren partez, agur eta goraintzi Argaiñarats, Daguerre, Haramburu, Materre, eta bertze aintzindari haiei.